



PRENTSA OHARRA: 2020.09.03

Azucena Vieitesek bere obraren berrirakurketa bat eramango du Berlingo Bienalera

- Lehen aldiz euskal artista bat izango da hitzordu honetan, eta bere proiektu esanguratsuenen *remake* prozesu batetik abiatutako instalazio bat aurkeztuko du.
- Berlingo Bienalaren 11. edizioak irailaren 5ean zabalduko du erakusketa-aldia; eta gizartea banatzen duten barne-arrakalak izango ditu ardatz, *The Crack Begins Within* izenpean.





Larunbatean, irailak 5, hasiko da 11. Berlingo Bienalaren erakusketa-garaia, nazioarteko pandemiak atzeratzera behartu ostean; eta azaroaren 1era bitarte luzatuko da. 50etik gora artistaz osatutako egitarau horren parte izango da, bestek beste, Azucena Vieites hernaniarra. Euskal artista baten lehen partehartzea izango da Berlingo Bienalean.

Etxepare Euskal Institutuaren helburu nagusienetako bat da euskal sorkuntza garaikidearen nazioarteko proiektioa bultzatzea eta euskal eszena eta nazioarteko testuinguruaren arteko loturak sendotzea. Horrela, diziplina ezberdinetako artisten presentzia sustatzen du atzerriko erreferentziazko hitzordu, ekitaldi eta arte garaikideko zentroetan. Vieitesen lana Bienaleko komisario taldeak aukeratu du, eta bere partehartzeak Etxepare Euskal Institutuaren babesa jaso du. Egitasmoaren irekiera-ekitaldian eta lehen egunetan Institutuaren ordezkari bat izango da bertan artistari bermea ematen.

Vieitesek bere aurretiazko proiektuen berregite edo *remake* prozesu batetik abiatutako instalazio bat eramango du Berlinera egunotan; *Coloring Book*, *Fundido Encadenado* eta *Break Out of your Shell* izeneko lanetakoak, hain zuzen. Lehenak hurrek duten espresatzeko eta munduari begiratzeko moduarekiko interesari egiten dio erreferentzia; bigarrenak irudikapenaren gaiari heltzen dio, egunerokotasunaren alderdi ludikotik eta fantasiatik; eta azkenak, aldiz, estetika azpikultural bati lotutako lengoian eta fanzine feministek praktika artistikoaren eta edizioaren artean lantzen dituzten *Do It Yourself* ekoizpen moduetan sakontzen du. Bere obra Berlingo KW Arte Garaikidearen Institutuko beira-arasetan egongo da ikusgai. Serigrafia, inprimaketa digitala eta collage formako emaitzek artistaren lanarekiko begirada berritzailea erakutsiko dute.

Aktibismoan oinarritutako ibilbidea

Vieitesek (Hernani, 1967) hainbat erakusketa egin ditu dagoeneko; hala nola *Hey Baby!*, (Casal Solleric, Palma, 2018); *Woollen Body* (Carreras Múgica galeria, Bilbo,



2015) edota *Tableau Vivant* (Reina Sofía Museoa, Madril, 2013). 90. hamarkadatik aktiboan dagoen artista honek proiektu eta erakusketa kolektibo ugarian hartu du parte. 1994an *Erreakzioa* kolektiboa sortu zuen Estíbaliz Sádaba eta Yolanda de los Bueis artistekin batera, praktika artistikoaren eta pentsamendu feministaren arteko proposamenak garatzeko asmoz. Kolektiboaren proiektuen artean, hamar fanzineren edizioa (1995-2000) edota *Sólo para tus ojos. El factor feminista en relación a las artes visuales* (Arteleku, 1997) bezalako mintegien zuzendaritza nabarmentzen dira.

Marrazkiaren, collagearen eta apropiazioaren etengabeko birlanketa bisuala erabiliz, Azucena Vieitesen lanak narrazio eta ezagutza-produkzio ez-linealen adierazpen-ahalmena aztertzen du. Bere lanak hainbat gairi buruzko gogoeta kritikoa egiten du, hala nola sorkuntza estetikoaren beti testuinguru sozial eta ekonomiko jakin bati lotutako prozesu gisa hartzea, edo egungo kultur irudikapen askotan irauten duen logika binarioa apurtzen lagunduko duten diskurtso-estrategiak sortzeko beharra. Bere praktika artistikoan, Vieitesek aktibismo feministarekin eta queer-arekin lotura estua izan du beti.

2004an Gure Arte saria eman zion Eusko Jaurlaritzak, Ibon Aranberri eta Iñaki Garmendia artistekin batera. 2019an egin zuen bere doktorego tesiaren irakurketa: *Prácticas artísticas low-fi. Una aproximación al contexto vasco (1985-2005)*. Egun irakasle elkartua da Madrilgo Complutense Unibertsitateko eta Salamancako Unibertsitateko Arte Ederren fakultateetan.

Berlingo 11. Bienala (BB11)

Berlingo Arte Garaikidearen Bienala, 1996an sortua, bi urtean behin antolatzen da Alemaniako hiriburuko gune edo espazio ezberdinetan, eta egutegiko arte hitzordu garrantzitsuenetarikoa bilakatu da. Formatu esperimentalak sustatzea eta kuradoreei eta artistei artearen merkatutik eta bildumaren interesetatik independenteak diren ideia eta proposamen garrantzitsuak aurkezteko espazioa eta askatasuna ematea ditu helburu nagusi.



Hainbat izen esanguratsu igaro dira hitzordu honetatik azken urteetan: Olafur Eliasson artista daniarra (besteak beste, egun *Bizitza Errealean* izeneko erakusketa du Bilboko Guggenheim museoan), Fiona Tan artista indonesiarra (Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean izandakoa) FEMEN aktibista taldea edota Rosa Barba italiarra (Tabakalera 2018an erakusketa egindakoa), esaterako.

11. edizioaren zuzendaritzarako, Hego Amerikatik etorritako lau komisarioz osatutako taldea bildu du antolakuntzak: María Berríos, Renata Cervetto, Lisette Lagnado eta Agustín Pérez Rubio. Komisario-talde honek hitzordurako egindako proposamena hiru ataletan banatu da, 2019ko irailetik hasita 2020 amaierara bitarte. Irailaren 5ean hasiko dena izango da hirugarren eta azken atala, “Epilogo” ere deitua, eta egindako ikerketaren emaitza ikuslegoari erakusteko balioko du.

The crack begins within (Arrakala barruan hasten da) izenez bataiatu duten Epilogo honek aurreko ataletan jorratutako norabide eta harreman artistikoei amaiera emango die, eta ikuspegi eta diskurtso feminista lehen lerroan jarriko du, gizarte bezala banantzen eta batzen gaituzten barne-arrakalen inguruan gogoeta eginez. Lau espaziotan garatuko da Berlingo hirian zehar, eta horietako bakoitzean gai orokorraren azpiatal bat jorratuko da: *The Antichurch* (Elizaren Kontra) KW Arte Garaikidearen Institutuan; *Storefront for Dissident Bodies* (Gorputz disidenteentzako erakusleihoa) daadgalerie espazioan; *The Inverted Museum* (Alderantzizko Museoa) Gropius Bau museoan eta *The Living Archive* (Artxibo Bizia) Berlingo Bienalaren erakusketa-eremu nagusian, Exrotaprint arte zentroan.

Komisario-taldeak argitaratu duen Kuratoretza Adierazpenean azaltzen dutenez, “Epilogoak elkar aitortzeko ariketa bat da, sistemaren pitzadurak ezagutu eta horiengatik apurtu diren horiek eta haien borrokak aintzatetsiko dituen. *Arrakala barruan hasten da* sendatzaile, zaintzaile eta borrokalaria diren horien hausturei, botereari eta kalteberatasunari egindako keinua da”. Vieitesen lana *The Antichurch* izeneko atalaren baitan erakutsiko da; patriarkatuaren eta elizaren erroetan eraikitako sistema honen aurrean gaur egun sortzen ari diren diskurtso artistikoak bilduko dituen espazioan, hain zuzen.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus